ANEXO II

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA, EUSKARALDIA EKIMENA GAUZATZEKO, EPEALDIA 2021-2024**

Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko 10/1982 Legeak bere 26. artikuluan euskararen gizarte-erabilera eta erakundeen alorreko hainbat alderditan euskal herri-aginteei eginkizun batzuk ezartzen dizkie. Artikulu horren arabera euskal herri aginteek neurri egokiak hartu beharko dituzte eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarteetako, kiroletako, erlijiozko edota beste edozein motatako jarduera guztiak euskaraz garatu ahal izan ditzaten.

Legeak ezartzen du, halaber, euskal herri-aginteek neurri egokiak eta beharrezko bitartekoak hartuko dituztela gizarte-bizitzako esparru guztietan euskararen erabilera sustatzeko.

Horregatik, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak Legeak agindutako sustapen-lan hori egiten dute, euskararen erabilera sozialaren arloan lan egiten duten elkarte, erakunde eta partikularrekin hainbat ekimen antolatuz. Horien artean, nabarmentzekoa da Euskaraldia ekimena, pertsona, elkarte eta erakunde ugari aktibatu baititu, eta, Jaurlaritzak egindako ikerketaren arabera, herritarren ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko balio izan duen metodologia bat erabili baitu.

Euskaraldia, euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa da, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua. Euskaraldiaren helburu nagusia

**PROYECTO DE NORMA FORAL DE RATIFICACIÓN DEL CONVENIO ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO Y LAS DIPUTACIONES FORALES DE ÁLAVA, BIZKAIA Y GIPUZKOA, PARA LA EJECUCIÓN DE LA INICIATIVA EUSKARALDIA, PERIODO 2021-2024**

La Ley 10/1982, básica de normalización del uso del euskera, en su artículo 26, atribuye a los poderes públicos vascos una serie de funciones en relación con aspectos del uso social e institucional del euskera. Según dicho artículo, los poderes públicos vascos deberán adoptar las medidas oportunas y poner los medios necesarios para fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, a fin de que la ciudadanía pueda desarrollar en euskera todas las actividades comerciales, culturales, asociativas, deportivas, religiosas o de cualquier otra índole.

La Ley establece, asimismo, que los poderes públicos vascos tomarán las medidas oportunas y los medios necesarios tendentes a fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social.

Por tal motivo, las Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco realizan esta labor de fomento encomendada por la Ley, organizando diferentes iniciativas con asociaciones, instituciones y particulares que trabajan en el ámbito del uso social del euskera. Entre ellas, cabe destacar la iniciativa Euskaraldia, que ha activado a un gran número de personas, asociaciones y entidades, y que ha utilizado una metodología que, según la investigación llevada a cabo por el Gobierno, ha servido para cambiar los hábitos lingüísticos orales de la población.

Euskaraldia es un ejercicio social masivo para cambiar los hábitos lingüísticos orales entre las personas que entienden el euskera, extendido a todos los ámbitos de la sociedad y limitado en el tiempo. El objetivo principal de Euskaraldia es

Egiaztatzeko helbidea Dirección de comprobación
https://e-s.araba.eus/wps/portal/ConsultaCove
Ziurtagiriaren zk. Código de Verificación
PEQ5-yyHv-6PL6-v8aX

herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. Helduen aktibazioa du oinarri, eta ariketa egin ahal izateko gutxieneko baldintza euskara ulertzea da.

aumentar el uso del euskera a través del cambio de hábitos lingüísticos de la ciudadanía. Se basa en la activación de personas adultas y el requisito mínimo para poder tomar parte es entender el euskera.

Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaleen Topaguneak (aurrerantzean, Topagunea) bultzatutako ekimena da, eta Euskal Herri osoan zabaldu da, erakunde publikoen eta mota guztietako gizarte-eragileen laguntzarekin. Halaber, foru-aldundien laguntza izan du.

Es una iniciativa impulsada entre el Gobierno Vasco y la Federación Euskaltzaleen Topagunea (en adelante, Topagunea) y que se ha extendido por todo el País Vasco con la colaboración de instituciones públicas y agentes sociales de todo tipo. Asimismo, ha contado con la colaboración de las Diputaciones Forales.

Ondorioz, arlo honetako jarduerak koordinatzeko, hitzarmen honen bidez, Euskaraldia ekimena gauzatzeko Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien arteko koordinazioaren oinarriak ezarri nahi dira.

En consecuencia, con el fin de coordinar las actuaciones en esta materia, mediante el presente convenio pretende establecer las base de la coordinación entre la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para llevar a cabo la iniciativa Euskaraldia.

Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari buruzko 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauak 6. artikuluan xedatzen duenez, Batzar Nagusiei dagokie Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzarekin edo Estatuarekin, beste lurralde historiko batzuekin, autonomia-erkidegoekin edo probintziekin egindako hitzarmenei buruz egindako proposamenak berrestea.

La Norma Foral de 7 de marzo de 1983, sobre Organización Institucional del Territorio Histórico de Álava, dispone en su artículo 6 que corresponde a las Juntas Generales la ratificación de las propuestas de la Diputación Foral relativas a convenios con el Gobierno Vasco o el Estado, con otros Territorios Históricos, Comunidades Autónomas o Provincias.

Foru Aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 6.1.2 eta 8.7 artikuluetan xedatutakoa ikusita.

Visto lo dispuesto en los artículos 6.1.2 y 8.7. de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral.

LEHENENGO ARTIKULUA. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien artean sinatu beharreko hitzarmena berrestea, Euskaraldia ekimena gauzatzeko, epealdia 2021-2024, Foru Gobernu Kontseiluak 2021eko azaroaren 30eko 724/2021 Erabakian erabakitako baldintzetan.

ARTÍCULO PRIMERO. Ratificar el convenio a suscribir entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, para la ejecución de la iniciativa Euskaraldia, período 2021-2024, en los términos acordados por el Consejo de Gobierno Foral en su Acuerdo 724/2021, del 30 de noviembre de 2021.

BIGARREN ARTIKULUA. Foru arau honek ALHAOn argitaratu eta biharamunean hartuko du

ARTÍCULO SEGUNDO. La presente norma foral entrará en vigor el día siguiente a su publicación

indarra.

en el BOTHA.